



Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria
El Lehendakari del Gobierno Vasco

Gipuzkoako Batzar Nagusien Ezohiko Bilkura 'IPUSCUA 1000 urte'

Altzon, 2025eko urriaren 15ean

Batzar Nagusietako presidentea, Diputatu Nagusia, Alkatea, Araba, Bizkaia Gipuzkoa eta Nafarroatik etorritako herri agintari eta ordezkariok, jaun-andreok, lagunok, egunon guztioi!

Jesus Altuna antropologo eta arkeologoak behin esan zuen herri orok dituela bere sustraiak, eta deserrotzeko arriskua dagoenean, inoiz baino gehiago ezagutu, errespetatu eta zaindu behar direla.

'Gipuzkoa' hitzaren idatzizko aipamenaren urteurren honek aukera bikaina ematen digu, hain justu, iraganak utzi digunari so egiteko.

Gure buruari galderak eginez, Herri bezala hazten jarraitzeko eta gizabidean aurrera egiteko.

Zer dakigu duela mila urte gurean bizi ziren pertsonen gainean?

Oso oinarritzakoak diren bi gauza:

- Batetik, batzartu egiten zirela elkarriketa sustatuz, eta
- Bestetik, sekulako garrantzia ematen ziotela batzartzeari.

Aspaldi-aspalditik, elkarrekin bizi ziren. Elkarrekin hartzen zituzten eguneroko bizitzari lotutako erabakiak. Elkarrekin egiten zioten aurre etorkizunari.

Beraien burua gobernatzeko hautua egin zuten, desadostasunak eta gatazkak eztabaidaren bidez kudeatzeko espazioak sortuz.

Badakigu, beste herri askok ez bezala, gai izan zirela haien ama hizkuntza, euskara, eta tradizio, ohitura eta legeak iraunarazteko.

Badakigu, mendeak igaro ahala, jatorrizko bizilagun batzar horiek indartu egin zituztela, eragiteko ahalmen handiagoa lortzeko.

Bat egin zuten bakea defenditzeko, leinu gerren aurrean.

Bat egin zuten abusuak eta gehiegikeriak ekidin, eta jauntxo eta erregeen boterea mugatzeko.

'Foru baimena'-ren formulazioak modu dotorean jasotzen du haien askatasunak gordetzeko egin zuten ariketa: "Onartuko da, baina ez beteko".

Garaiko euskal herritarrek aurrera egin zuten pertsonaren duintasuna eta berdintasuna bermatzeko bidean.



Europako lehenetarikoak izan ziren 'habeas corpus'-a, edo torturaren debekua ezartzen foru arauen bidez.

Ekintzaileak izan ziren. Nabigatzaile eta itsasontzi ekoizle apartak. Itsaso ezezagunak zeharkatu zituzten bizimodu hobe baten bila.

Eta, estuasunak estuasun, hurrengo belaunaldietan pentsatu zuten.

Adibidez, burdinolek eta ontzigintzak ekar zezaketen deforestazioari aurre egiteko, Gipuzkoako Batzar Nagusi hauek XVI. mendean hau ebatzi zuten: "Mozten den zuhaitz bakoitzeko, bi edo hiru gehiago landatu beharko lirakekeela. Eta kontzeju bakoitzak 500 haritz eta gaztainondo berri landatu beharko lituzkeela urtero, lursail guztia basotu arte".

'Ipuskuatik' Gipuzkoara, mila urtetan, euskal orubea zaindu eta indartu zuten, kultura eta tradizio politiko sendo batetik abiatuta.

Herriz herri, bailaraz bailara, lurraldez lurralde, elkarlanetik abiatuta, gure Herria egituratu zuten.

Garaian garaiko erronketara egokituz, finkatu egin zituzten gure autogobernuaren eta arkitektura instituzionalaren zimenduak.

Orain, lekukoa hartzea dagokigu.

Nuestra historia, como la de cualquier otra nación, arroja luces y sombras. Pero entre las primeras, no nos faltan motivos de orgullo.

Lo que somos, lo que tenemos, se lo debemos a quienes nos precedieron.

Es el fruto de toda una cultura y tradición política que, ante las dificultades y la incertidumbre, ha marcado el rumbo de nuestro Pueblo.

Hace diez siglos no hablaban de democracia ni de derechos humanos en términos modernos, pero hicieron avances decisivos para proteger la igualdad y la dignidad de las personas.

No hablaban de "tecnofeudalismo" ni autoritarismos, pero se opusieron a los "jauntxos", a sus guerras, y a los abusos de poder.

No hablaban de políticas lingüísticas, pero supieron conservar nuestra lengua contra la propia lógica de la Historia.

No hablaban de competitividad o I+D+i, pero desarrollaron una industria naval puntera, de referencia global.

No se había inventado el término 'globalización', pero fueron los primeros en dar la vuelta al planeta.

No utilizaban la palabra sostenibilidad, pero aprobaron leyes y ordenanzas que protegían el medio ambiente y aseguraban un uso equilibrado de los escasos recursos naturales del País.

No se referían a la autonomía, al autogobierno o a la descentralización del poder. Pero protegieron e hicieron valer sus leyes, normas y costumbres ante reyes y monarcas.



Todo esto lo hicieron, tal y como simbolizamos hoy, reuniéndose, hablando y anteponiendo lo que les unía. Zuhaitzen gerizpean batzartuta.

Decidieron porque eran, y eran porque decidían.

¡No olvidemos jamás nuestra propia tradición política!

Hori da eraikitzen jarraitu nahi dugun Euskadi. Izena eta izana duena:

Balio demokratikoetan sakonduz,

Auoritarismoari aurre eginez,

Euskarak behar duen jauzia emanaz,

Industria eta ekonomia sendo eta jasangarria ehunduz,

Garai berriei aurre egiteko gaitasun politiko berriak garatuz.

Gaur, Altzon, Euskadi demokratiko, lehiakor, justu eta globalaren alde bat egiten dugu.

Hemen elkartuta gauden jatorri, bizimodu eta pentsamolde ezberdinetako euskaldunok.

Herri bat. Komunitate bat.

‘Gernikako Arbola’, gure kanta kutuna bihotzean dugula.

“Gerrarik nahi ez degu

pakea betiko,

gure lege zuzenak

hemen maitatzeko”

Eskerrik asko guztioi, bihotzez, gonbidapenagatik.

Zorionak Altzo! Zorionak Gipuzkoa! Eta zorionak Euskadi eta euskal herritar guztiei!